



JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

(1)

GENERO BERDINTASUNA ETA HAREN PROIEKZIOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEENGAN.

- Modalitatea:** Presentziala.
- Lekua eta egunak:** DONOSTIA-SAN SEBASTIAN: 2014ko urriaren 6, 7, 8 eta 9a.
VITORIA-GASTEIZ: 2014ko urriaren 13, 14, 15 eta 16a.
BILBAO: 2014ko urriaren 20, 21, 22 eta 23a.
- Matrikula:** Ikastaro bakoitza hasi baino astebete lehenagora arte.
- Ordutegia:** 16:00 – 19:00..
- Irakaslea:** Izaskun Reyes Echezarreta, Justizia Administrazioako
Zuzendaritzari atxikitako funtzionarioa.
- Iraupena:** 12 ordu.
- Plaza-kopurua:** 30
- Helburuak:**
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarriko kontzeptuak ikastea.
 - EAEko lege-esparrua eta berdintasun-politikak ezagutzea.
 - Administrazioan berdintasuna lortzeko hartzen diren neurrien justifikazioa ulertzea.
 - EAEko Justizia Administrazioako langileentzako berdintasunaren aldeko neurri zehatzen berri izatea.
- Egitaraua:**
- Rol femeninoari buruzko bilakaera soziala, laburbilduta.
 - Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako Lege Organikoa (martxoaren 22ko 3/2007) eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako EAEko Legea (otsailaren 18ko 4/2005):
 - Antzak eta aldeak.
 - Beste arau batzuetan izandako eragina.
 - EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Akordioaren ikuspegi orokorra.
 - Justizia Administrazioako Langileen IV. Akordioaren Berdintasunerako Batzorde Paritarioa:
 - Eraketa eta funtzionamendu-arauak.
 - Hartutako konpromisoak.
 - Berdintasunerako Batzordetik sortutako arau propioak.
 - Justizia Administrazioaren lan-esparruan eraso sexuala edo sexista egonez gero, bete beharreko jarduera-protokoloa.



(2)

ADIMEN EMOZIONALA: Herritarrenganako arreta prozesuaren hurbiltze praktikoa*Modalitatea:* Online*Datak:* AUTOMATRIKULA: irailaren 5era arte
IKASTAROA: 2014ko urriaren 1etik 21a arte.*Iraupena:* 15 ordu.*Plaza-kopurua:* 30*Helburuak:*

- Laneko estresean eragiten duten herritarrenganako arretaren prozesurako baliabide pertsonalak, trebetasunak eta barruko aldagaiak aztertzea.
- Lanpostuak berekin dituen mehatxuak eta aukerak ezagutzea eta lanpostuan eraginkortasunez jarduteko estrategia erabiltzeko behar diren gizarte-trebetasunak bereiztea.
- Herritarrenganako arreta emateko zeregina bete-betean gureganatzeko teknikak eta trebetasunak lantzea.
- Herritarrei arreta eskaintzeko eta haiei leial bihurtzeko estrategiak identifikatzea adimen emozionalaren ikuspegitik..
- Erresistentzia handiko pertsonen atributu eta trebetasun bereizgarriak ezartzea eta horiek garatzeko plan bat definitzea.

Egitaraua:

- Herritarrenganako arretaren prozesua laneko estresaren ikuspegitik ezagutzeko.
- Herritarrenganako arreta-lana eraginkortasunez egiteko behar diren gizarte-trebetasunak ezartzeko.
- Herritarrenganako arretaren prozesuak behar dituen teknikak eta trebetasunak aplikatzeko.
- Herritarrei arreta eskaintzeko definitzeko adimen emozionalaren ikuspegitik
- Norberaren erresistentzia garatzeko.

Automatrikula:

Norberaren datuak (NAN-zk., izena eta abizenak) eta **kanpoko posta elektronikoko** helbide bat jaso, eta e-mailen bidez bidali behar dira helbide honetara: justiziagela@aju.ej-gv.es
Ez badago e-mailez bidaltzerik, datuok faxez bidal daitezke zenbaki honetara: :945 01 91 52 (datu pertsonalak eta kanpoko posta elektronikoko helbide bat)

**Ebaluazioa:**

Ikastaroaren helburu orokorrak lortu direla bermatzea izango da ebaluazioaren Helburua.

14 ariketa praktikoen bidez egingo da. Zenbait jarduera *online* egin behar dira, eta beste batzuk *pc-n*, egin ondoren plataforma birtuanean txertatzeko; izan ere, handik irakasleak ariketak zuzenduko ditu eta berriz ere bidaliko dizkie bueltan ikasleei. Orobat, arian-arian ezarriko ditu edukiak ikasteko eta jarduerak egiteko bete beharreko epeak.

Betekizunak:

Ikastaroa ondo egin ahal izateko ezinbestekoa da **posta elektronikoko helbide bat, epaitegikoa ez dena**, jartzea.

Ziurtagiriak:

Aprobetxamendu Ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Gutxienez ikastaroaren 10 jarduera ondo egitea.

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak bidaliko du ziurtagiria epaitegira, behin ikastaroa amaitu eta gero.